

Sagarrondoak, sagarrak, sagardoa eta sagardotegiak

Urte berriarekin bateratsu, txotx-sasoia hasten da. Hala ere, Zuberoako Urdiñarbe herrian azaroan egiten dute sagardo-jaialdia urtero hainbat usurbildarrekin batera. Sagartze elkartean, bestetik, Ipar Euskal Herriko sagartze- edo sagarrondo-espezie autoktonoak babestu eta sustatzen dituzte.



Sekuentzia honetan hauxe egingo duzu:

- Sagartze elkartearen inguruko testu bat irakurri eta hutsuneak beteko dituzu.
- Geroago adituko duzun entzungaiko hiztegia landuko duzu eta zubererazko zenbait hitz euren baliokideekin lotu beharko dituzu.
- Urdiñarbeko herritar bati egindako elkarrizketa entzun eta ideia nagusia aterako duzu.
- Ondoren, berriro entzun eta aukeratu erantzun zuzena.
- Bukatzeko, sagardotegien gainean mintzatuko zara ikaskideekin.

Irakurri testua eta bete hutsuneak

Irakurri Sagartze elkarteari buruzko testua eta bete hutsuneak emandako aukerekin.

Sagartze elkartea, 25 urtez Ipar Euskal Herriko espezieen alde lanean.

Sagartze elkartea 1990 inguruan sortu zen Ipar Euskal Herrian bertako zuhaitz sagardunak _____ . Hango sagarrondo-espezie zaharrak galtzen ari zirela _____ , zerbait egin behar zela erabaki zen. Orduan, arbola zaharrei _____ eta, Nafarroa Beherean desagertzen ari ziren sagar motak errekupeatzeko asmoz, 30 bat _____ 16.000 zuhaitz landatu zituzten sagardoa edo zukua egiteko. "Jateko fruituentzat 7000/8000 sagarrondo inguru ere landatu ditugu" gehitzen du elkarteko burua den Pantxika Maitiak. Sagartze elkarteak bere produkzioa saltzeko posibilitaterik ez zuenez, 29 laborariren artean Eztigar kooperatiba sortzea erabaki zuten 1996ean. Geroztik, sagardoa nagusiki eta sagar zukua ere _____ dute. Honekin batera ere, elkarteak prestakuntza ekitaldiak antolatzen ditu. Adibidez, sagarrondoan mozte ikastaldiak antolatu ohi dituzte bertako espezieak diren Donaixtikoko lur _____ batean.

Bestalde, Sagartzek _____ eman du sagarrondo urteko landareak badituztela, sagarrondoak landatu nahi izanez gero. Hamar bat klase ezberdin dituzte. Hala nola, Andredenamari, Anisa edo Apez sagarra, Eri sagarra, Gordin xuria, Peatxa eta abar. Sagarrondoak otsail _____ arte landatu ahal direla zehaztu du elkarteak. Hortaz, garaiz gabiltza oraindik ere. "Datorren ikastaldia laster antolatuko dugu, txertaketa , txertoa eta txertagaiaren hautatzen irakatsiko diogu interesatua den pertsonari" gehitu du Maitiak.

www.sagardoetxea.eus

(moldatua)

Jakitera
Ekoizten
Txertoa egin
Hondarrera
Sustatzeko
Oharturik
Laborarik
Eremu

Hiztegia lantzen

Zubererazko elkarrizketa entzun aurretik, hiztegia landuko duzu. Lotu kurtsibazko hitzak dagokien baliokidearekin.

ESALDIA

Anitzentzat sagarra ere besta da

Anitzentzat sagarra ere besta da

Urdiñarben zer agitzen da azaroan?

Ez da gaitz, zeren eta horiek beti lan gehiena egiten dute

Kasik 20 urte egiten dugula-eta gure sagardo-jaialdia

Hor ilkiko den sosa Integrazio-batzordearendako da

Hor ilkiko den sosa Integrazio-batzordearendako da

Aitzinerat eramateko

Gogozkatu genuen zer zerbitzu egiten ahal genuke

Haur elbarriek merezi dute sostengu bat



SINONIMOAK

Aurre

Jaia

Hausnartu

Asko

Gertatu

la

Diru

Laguntza

Zail

Atera

Entzun eta atera ideia nagusia



Elkarrizketaren ideia nagusia idazterakoan kontuan hartu galdera hauek:

-Zer ospatzen dute urtero azaroan Urdiñarben?

-Nortzuek ospatzen dute?

-Noizko sagardoa edaten dute?

-Norendako da biltzen duten sosa?



Entzun berriro eta aukeratu erantzun zuzena

Elkarrizketa entzungo duzu berriro. Entzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.



Noiz hasi ziren ospatzen sagardo-jaialdia Urdiñarben?

Duela kasik 20 urte.
Duela 20 urte.
Orain dela 40 urte.

Nortzuk batzen dira Urdiñarben urtero?

Urdiñarbetarrak bakarrik.
Urdiñarbeko eta Usurbileko hainbat lagun.
Urdiñarbe eta Astigarragako hainbat lagun.

Aurten nori egingo diote omen jaialdian?

Lontxo Zubiriari.
Herriko haurrei.
Sagardo-jaialdiaren sortzaileetako bati, hau da, Dominikari.

Nor zen Dominika?

Sukaldari nagusia.
Lehen arrain-zopa prestatzen zuena.
Sagardo-jaialdiaren sortzaileetako bat.

Zertarako erabiltzen dute urtero ilkitzen duten sosa?

Herriko haurrei emateko.
Haur elbarriei sostengu emateko.
Herriko haurtzaindegirako.

Mintzatu sagardotegien inguruan ikaskideekin

Taldea txotx-garaiaz hitz egingo duzue. Kontatu zure esperientzia honakoak aintzat hartuta:

- Joan zara inoiz sagardotegiren batera?
- Zeinetara? Norekin?
- Zer jan zenuen bertan?
- Txotxetik edan zenuen? Gustuko izan zenuen?

Amaitutakoan, taldeak iritzi bat adostuko du gai honen inguruan:

Ondoren talde handian eztabaidatuko duzue kontuaz eta talde bakoitzak adostutako argudio eta arrazoiak aurkeztuko ditu.

- Sagardotegian nola nahiago duzue jan, zutik ala eserita?



Zuzenketa-orria

Irakurri testua eta bete hutsuneak

Sagartze elkarteak, 25 urtez Ipar Euskal Herriko espezieen alde lanean.

Sagartze elkarteak 1990 inguruan sortu zen Ipar Euskal Herrian bertako zuhaitz sagardunak (sustatzeko). Hango sagarrondo-espezie zaharrak galtzen ari zirela (oharturik), zerbait egin behar zela erabaki zen. Orduan, arbola zaharrei (txertoa egin) eta, Nafarroa Beherean desagertzen ari ziren sagar motak errekupeatzeko asmoz, 30 bat (laborarik) 16.000 zuhaitz landatu zituzten sagardoa edo zukua egiteko. "Jateko fruituentzat 7000/8000 sagarrondo inguru ere landatu ditugu" gehitzen du elkarteko burua den Pantxika Maitiak.

Sagartze elkarteak bere produkzioa saltzeko posibilitaterik ez zuenez, 29 laborariren artean Eztigar kooperatiba sortzea erabaki zuten 1996ean. Geroztik, sagardoa nagusiki eta sagar zukua ere (ekoizten) dute. Honekin batera ere, elkarteak prestakuntza ekitaldiak antolatzen ditu. Adibidez, sagarrondoaren mozte ikastaldiak antolatu ohi dituzte bertako espezieak diren Donaixtiko lur (eremu) batean.

Bestalde, Sagartzek (jakitera) eman du sagarrondo urteko landareak badituztela, sagarrondoak landatu nahi izanez gero. Hamar bat klase ezberdin dituzte. Hala nola, Andredenamari, Anisa edo Apez sagarra, Eri sagarra, Gordin xuria, Peatxa eta abar. Sagarrondoak otsail (hondarrera) arte landatu ahal direla zehaztu du elkarteak. Hortaz, garaiz gabiltza oraindik ere. "Datorren ikastaldia laster antolatuko dugu, txertaketa, txertoa eta txertagaiaren hautatzen irakatsiko diogu interesatua den pertsonari" gehitu du Maitiak.

www.sagardoetxea.eus

([moldatua](#))

Hiztegia lantzen

ESALDIA

Anitzentzat sagarra ere besta da
 Anitzentzat sagarra ere besta da
 Urdiñarben zer agitzen da azaroan?
 Ez da gaitz, zeren eta horiek beti lan gehiena egiten dute
 Kasik 20 urte egiten dugula-eta gure sagardo-jaialdia
 Hor ilkiko den sosa Integrazio-batzordearendako da
 Hor ilkiko den sosa Integrazio-batzordearendako da
 Aitzinerat eramateko
 Gogozkatu genuen zer zerbitzu egiten ahal genuke
 Haur elbarriek merezi dute sostengu bat

SINONIMOAK

Asko
 Jaia
 Gertatu
 Zail
 Ia
 Atera
 Diru
 Aurre
 Hausnartu
 Laguntza

Entzun eta atera ideia nagusia

(Azaro aldera, hainbat urdiñarbetarrek sagardo-jaialdia ospatzen dute herrian, Usurbiletik joandako lagun askorekin batera. Urteko sagardoa oraindik egin gabe dagoenez, aurreko urteko sagardoaz egiten dute otordua. Era berean, ilkitzen dituzten sos guztiak eskualdeko haur elbarrien integrazio-batzordearendako dira.)

Entzun berriro eta aukeratu erantzun zuzena

Noiz hasi ziren ospatzen sagardo-jaialdia Urdiñarben?

✓ Duela kasik 20 urte.

Nortzuk batzen dira Urdiñarben urtero?

✓ Urdiñarbeko eta Usurbileko hainbat lagun.

Aurten nori egingo diote omen jaialdian?

✓ Sagardo-jaialdiaren sortzaileetako bati, hau da, Dominikari.

Nor zen Dominika?

✓ Sagardo-jaialdiaren sortzaileetako bat.

Zertarako erabiltzen dute urtero ilkitzen duten sosa?

✓ Haur elbarriei sostengu emateko.

Transkripzioa

Entzun eta atera ideia nagusia

Oharra transkripzioaz: testu hau zuzenean euskara batura bihurtu dugu ulergarritasuna erraztu arren.

ARTZEN LETONA.- Anitzentzat sagarra ere besta da; batez ere sagardo bilakatzen delarik.

LAIA MARTIN.- Esan nahi duzu festa bat dela zuretzat.

A.L.- Urdiñarbe eta Usurbilgo lagunentzat, behintzat, bai.

A.L. (berrito)- Azaro-hastapen honetan badela giro! Urdiñarben zer agitzen da?

M.A.- Jada kasik 20 urte egiten dugula-eta gure sagardo-jaialdia Usurbileko lagunekin; ez dela gaitz zeren eta horiek beti lan gehiena egiten (dute). Aspalditik-eta harremanak baditiagu Usurbileko herriarekin, eta gaur bereziki bagenian eta ohar berezi bat Dominikarendako, eta horrek beste bero batez ari dik-eta gure hartu-emanetan. Eta hor baduk orain zerbait jateko prestatzen ari; besteak-eta utzi xerratzen, besteak zerbitzatzen, eta ehun eta hiruretan hogeit jende hor, mahai gainean eta giro ona, eta hola. Izaten ahal den gauza interesgarriena hor ilkiko den sosa Integrazio-batzordearendako dela, eta bi lurraldeetako herriei, ba, presentatzen ahal diela bere xede baten eta aitzinerat eramateko.

A.L.- Hor bi gauza agian: behatzaile guziek argi izan dezaten aipaturik Dominika eta Integrazio-batzordea.

Esplikatzeko ahal dezakek zer diren bi gauza horiek?

M.A.- Dominika izan duk sorrerazlea, nahi baduk, eta Lontxo Zubiriarekin Gipuzkoaren eta Zuberoaren arteko harremanen zabaltzaile izan dituk biak. Inurri lan bat, xinaurri lan bat, eta hor Dominika urtea kasik joan egin dela, beti gure artean duk eta omen ttipi bat nahi genian egin, ohar ttipi bat, eta elkarrekin ibili ginela. Eta gero, Integrazio-batzordea, agintean behar dugu egin halako jaialdi bat interes berezi batekin, erratea benefizio egiteko ala sos juntatzeko. Ohartu gintuan, gogozkatu gintuan, erran eta hala zer zerbitzu egiten ahal genuke gure inguruan, sekulan benefizio zerbait ilki bageneza, Integrazio-batzordea aipatu genian orduan, eta bereziki bere ondoko urteetan holako gauza bat ikasi behar den, zeren eta hurrek baldintza txarretan diren eta hurrek, elbarriak direnek-edo, merezi diate sostengu bat. Hau dela, euskarazko ikasketan egiten dira. Bazekiagu, gobernuek-eta zer laguntza ematen diaten zentzu horretara. Orduan elkartasunak hori zabaltzen eta sostengatzen ahal badu, jarrai dezagun geure bidetik.

A.L.- Izen-abizena?

M.A.- Llargo.

A.L.- Urdiñarbetarra?

M.A.- Ontsalaz bai.